

# GORBEIA

IBILBIDEAK  
ITINERARIOS



UBIDE




## 29 KALTZADA ZAHARRA ANTIGUA CALZADA

### 29 KALTZADA ZAHARRA ANTIGUA CALZADA

Oraindik mantentzen dira Ubiden Araba eta Bizkaia lotzen zituen errege bidearen aztarnak, ibilbide honek kaltzada zahar hori ezagutu eta ibiltzeko aukera ematen digu.

Aún se conservan en Ubide los vestigios del viejo Camino Real que unía Araba con Bizkaia. Este recorrido nos permite conocer y caminar sobre la antigua calzada.

<b>IRTEERA</b>	Goiko parkea	<b>SALIDA</b>
<b>HELMUGA</b>		<b>LLEGADA</b>
<b>LUZERA</b>	6,2 km	<b>LONGITUD</b>
<b>GEHI.MALDA (+)</b>	216 m	<b>DESNIVEL (+) ACUMULADO</b>
<b>DENBORA</b>	1h 30'	<b>TIEMPO ESTIMADO</b>
<b>ZAILTASUNA</b>	erraza fácil	<b>DIFICULTAD</b>



Ikuspegia Eneabetik  
Vistas desde Eneabe

### ERREGE BIDEA


Araba eta Bizkaia lotzen zituen errege bidea Arratiako bailara zeharkatu eta Ubidetik pasatzen zen. Oraindik mantentzen da harrizko bide zahar honen jatorrizko eraikuntza, Ubiden bertan, Done Joane elizatik hurbil eta ibilbide honetako zenbait puntutan, Barazarrera zihoan bidean. Elizatik hurbil dagoen plaka batean irakurri

dezakeguz, 1476. urteko ekainean Fernando Katolikoa bertatik igaro zen foruei zin egitera joan zenean. Gernikara bidean Bilbo eta Larrabetzutik pasatu zen. Leku horietan ere zin egingo zuen, Gernikatik Bermeora jarraitu aurretik. Errege Bidea hainbat mendez erabili zen, XIX. mendearen erdialdean Barazargo errepeidea ireki zen arte.



Galtzada  
Calzada

www.gorbeiauskadi.com



**OROZKO**  
Plaza Zubiaur  
946 122 695

**MURGIA**  
Plaza Bea-Murgia  
945 430 440

## Ibilbidea

Goiko Parketik abiatuko gara, Done Joane bataiatzailearen eliza alboetik. Bertan Bizkaia eta Araba lotzen zituen galtzadaren zati ederra mantentzen da, 2008an berreraikitakoa. Galtzada atzean utzi eta Zubizabal ibaiaren parean doan errepeidean aurrera egingo dugu, baserri, larre eta hostozabalen baso artean, Ubidegoiti baserrira heldu arte.

Ubidegoititik, bideak aurrera jarraitzen du Ubide eta Zeanuri arteko etxalde txiki batera heldu arte. Aurrera jarraituko dugu hemen, mendian gora, landaketa eta baso artean, galtzada zaharretik. Bide historiko zaharrak oraindik mantentzen du tarteka bere jatorrizko enkatxo edo harzola. Bere harriek hitz egingo balute merkatari, bidaiari, bidelapur, errege eta abarren istoriak kontatuko zizkiguten.

Besaldeta ingurura iritsiko gara, konifero sailak gurutzatu ondoren. Han, antzinako errege bidea albo batera utzi eta ezkerrean egingo dugu, Eneabe aldera.

Barazargo BTT bidearekin batera goaz, Zepalekueta muinoa inguratuz. Gora egin ahala, Barazar aldera ikuspegi ederra zabalduko zaigu bere edertasunaz gozatzeko aukera eskainiz.

Ibilbidea, Zepaleku eta Upate eta Eneabe tontorren artean hedatzen diren larreetatik doa. Ibilbidearen puntu honetan ez da arraroa ganadua bazkatzen aurkitzea.

Antena ugari betetzen dute Eneabe tontorra. Baina apur bat aurrerago, hegoalderago, gailurraren mugari ederra eta postontzia daude. Merezki du lekua bisitatzeko, Urkiola, Gorbela eta Ubideren ikuspegi ederraz gozatzeko aukera eskainiko baitigu.

Auzo-bidea jaisten da Eneaben behera. Baso eta landaketak atzean utzi eta edertasun handiko auzo eta baserri artetik ibiltzeko aukera izango dugu Done Joane bataiatzailearen eliza eta Goiko Parkera heldu arte, amaiera puntura.

## Itinerario

Partimos de Goiko Parkea, junto a la Iglesia de San Juan Bautista, donde se conserva, fruto de una reconstrucción del 2008, parte de la antigua calzada que unía Bizkaia y Álava. La calzada deja paso a un tranquilo camino vecinal, que paralelo al río Zubizabal se dirige aguas arriba, entre caseríos, campas y bosquetes de frondosas hasta alcanzar el caserío Ubidegoiti.

Desde Ubidegoiti, el camino continúa hasta alcanzar una pequeña granja ubicada entre los límites de Ubide y Zeanuri. Continuamos de frente, ascendiendo suavemente, entre plantaciones y bosques, por la antigua calzada. Aflora en pequeños pero numerosos tramos el encachado de la vieja calzada. Si sus piedras hablasen nos contarían historias de mercaderes, viajeros, bandoleros, reyes...

Alcanzamos el entorno de Besaldeta, tras cruzar plantaciones de coníferas, donde abandonemos el antiguo camino real para girar a la izquierda hacia Eneabe.

Ascendemos junto a la ruta BTT de Barazar, bordeando la loma de Zepalekueta, donde a medida que vamos ganando altura podemos disfrutar de las amplias vistas que se abren hacia Barazar.

El camino discurre por los pastos que se extienden entre Zepaleku y las cimas de Upate y Eneabe. No es raro encontrar ganado pastando en esta zona del recorrido.

Las numerosas antenas que ocupan la cima de Eneabe, esconden algo más al sur, el bello mojón y buzón de Eneabe. Merece la pena desviarnos algo del camino para acercarnos a la cima y disfrutar de su bella panorámica hacia Urkiola, Gorbela y Ubide.

Descendemos por el camino vecinal que irá dejando atrás la zona más boscosa para descender entre bellos barrios y caseríos hasta alcanzar nuevamente la iglesia de San Juan Bautista y Goiko Parkea.

### CAMINO REAL

El Camino Real que unía Álava y Bizkaia cruzaba Ubide a su paso por el valle de Arratia. Aún se conserva parte del encachado original de la antigua calzada en Ubide, cerca de la Iglesia de San Juan y en algunos puntos de este recorrido, en el viejo camino a Barazar. Una curiosa placa instalada cerca de la Iglesia nos recuerda

que en junio de 1476, Fernando el Católico pasó por este camino cuando se dirigía a Bizkaia, a jurar los fueros. Camino a Gernika pasó por Bilbao y Larrabetzu, paradas de la Ruta Juradera, antes de seguir su viaje hacia Bermeo. El Camino Real fue utilizado durante siglos, hasta la apertura, a mediados del siglo XIX, de la carretera actual a Barazar.





### GOGORATU! IRECUERDA!

**Ingurunea, flora eta fauna errespetatu.** Zarata egitea ekidin, ez egin surik eta zure txakurra lotuta eraman.

**Ingurunea garbi mantendu.** Ez utzi zaborra bertan; utzi edukiontzietan edo eraman ezazu.

**Seinaleztapena errespetatu.** Prestatutako lekuetan aparkatu, bideak erabili eta atakak itxi.

**Arreta artzai txakurrekin,** utzi bakean, lanean daude. Hurbiltzen badira, lasai egon, ez egin korrikarik eta eraso bezala hartu dezaketen mehatzuko keinuak ekidin.

**Informazioa eskatzeko,** Orozkoko eta Murgiako turismo-bulegoetara jo dezakezu, edo gure webgunean kontsultatu: [www.gorbeiaeuska.com](http://www.gorbeiaeuska.com)



**Respetar el entorno, la flora y la fauna.** Evita hacer ruido, no hagas fuego y lleva atado a tu perro.



**Mantén limpio el entorno.** No abandones basura; depositala en los contenedores o llévatela.



**Respetar la señalización.** Aparca en lugares habilitados, utiliza los caminos y cierra las cancelas.



**Atención a los perros pastores,** no los molestes, están trabajando. Si se acercan, mantén la calma, no corras y evita gestos amenazantes que puedan interpretar como un ataque.




**Para solicitar información** puedes acudir a nuestras oficinas de turismo ubicadas en Orozko y en Murgia o consultando en nuestra web: [www.gorbeiaeuska.com](http://www.gorbeiaeuska.com)

track-a  
deskargatu

descárgate  
el track

Gaur egun ibilbide hau ez dago seinaleztatuta. Ibilaldia segurtasunez egin ahal izateko, deskargatu track-a zure GPS edo mugikorrean.

Hoy en día este recorrido no se encuentra señalado. Para poder realizar la ruta con seguridad, descarga el track en tu GPS o smartphone.



	ibilbidea Itinerario		Gailurra Cima
	HASIERA INICIO		Ikuspegi panoramikoa Vista panorámica
	Mendiko ibilbide luzea Itinerario de Gran Recorrido		Atsedenekua Área recreativa
	Natura 2000 Sarea Red Natura 2000		Iturria Fuente
	Galtzada Cálzada		Taberna, jatetxea Bar, restaurante
	Eliza Iglesia		Aterpetxea Albergue
	Baseliza Ermita		Aparkalekua Aparcamiento
	Arechagaren txaleta Chalet de Arechaga		Bus geltokia Parada autobús



29 KALTZADA ZAHARRA  
CALZADA ANTIGUA

Aireko argazkiak / fotografías: 2019 - Euzko Geolaburak